
Hausnarketa autonomoa garai aurrefilosofikoetan:
kultura homerikoaren irakurketa heterodoxo bat
polis-aren argitara

Gradu Amaierako Lana

Filologia Klasikoko Gradua

2021-2022 ikasturtea

Ikaslea: Jaione Saldaña Barroso

Tutorea: Hannot Rodríguez Zabaleta

Saila: Filosofia

Laburpena

Aurrean daukagun lanean autore epiko ezagunenari buruz arituko gara: Homero. Homerok mendebaldeko literatura oso bati hastapena eman zion eta, nola ez, haren olerkiei buruz interpretazio ugari egin izan dira historia osoan zehar. Aztertzeko hainbeste elementu dituen olerki hauetan heroi homerikoarengan arreta jartzea suertatu zaigu oraingo honetan.

Herói homeriko nagusia Akiles daukagu hemen, horregatik erreferentzia gehienak *Iliadatik* hartuko dira. Hala ere, lan honetarako *Odisea* ere kontuan hartu izan da Odiseo ere herói homeriko esanguratsua baita. Olerki hauen interpretazio tradizionaletik abiatuta harago doan ikuspuntu bat azalduko da. Horretarako, olerkietan agertzen den gizarteari dagokionez, hedatuen izan den interpretazio sozio-politikoaz azalduko da, ondoren hau ezbaian jartzeko. Interpretazio tradizionalarekin jarraituz, kondairetan herói homerikoak betetzen duen paperaz ere arituko gara, eta interpretazio horren zilegitasunari buruz hausnartuko dugu. Heroien funtzio soziala eta betebeharrak jainkoekin estuki lotuta daudela dio tradizio literarioak, baina lanean aurrera egin ahala uste hori kolokan geratuko da.

Herói homerikoarekiko interpretazio tradizionala azaldu ondoren, honek, subjektu politizatua den heinean, duen jarrera hausnarkorrari eta subjektibotasunari buruz arituko gara. Adieraziko den moduan, ezin da lan literario bat bere koiuntura politiko eta sozialetik at interpretatu eta aztertu. Pertsonaien subjektibotasunak egoeren aurrean erabaki pertsonalak hartzeko gaitasuna ahalbidetzen du; eta hori da, hain zuzen, azalduko dena. Subjektibotasun hau estuki lotuta agertuko da heroien eta jainkoen arteko harremanarekin. Tradizioaren interpretazioak dioenaren kontrara, lanean pertsonaien autonomia defendatuko da, jainkoen zeregina bigarren maila batean kokatuz. Heroien subjektibotasunak iritzi propioak garatzeko gaitasuna eskaintzen dio heroiari, modu horretan jainkoen mesedetatik at jokatzeko aukera eskainiz.

Esandakoaren adibide zehatzak eman ondoren, aipatutako koiuntura sozio-politikoan sakonduko da jarraian, *polisek* izan zuten garrantzia nabarmenduz. Beraz, Aro Mizenikoan existitzen ziren *oikosak* Aro Arkaikoan indarra hartzen hasiak ziren *polisekin* alderatuko dira. *Polis* hauen baitan gizabanakoek eztabaidarako gaitasunak eskuratzen dituzte, eta bertako egitura sozialak hauek subjektu politikoak bilakatzen ditu. Ezaugarri

hauekin, pertsonaiek eztabaiden aurrean subjektibitate hausnarkor bat garatzen dute, izaera autonomoa duena (interes komun batzuei erantzuten dien besteen pentsamoldearreriko independentea dena). Beraz, Homerok olerkietan islatutako kolektibitateak hartuko du garrantzia, hau *polis*en ezaugarri nagusia baita. Kolektibitate honek eztabaidetarako, eta hortaz, argudiaketarako baldintzak eskaintzen ditu, asanbladen testuinguruan, adibidez. Beraz, *polis*ak dakarren egitura sozial kolektiboak heroi homerikoaren pentsamoldean eragin zuzen bat du, bere izaera eta jarrera zehazten duena.

Aurkibidea

0. Sarrera.....	5
1. <i>Iliada</i> eta <i>Odisearen</i> testuinguru historikoa.....	8
2. Olerki homerikoen ikuspegi tradizionala.....	10
2.1. Interpretazio sozio-politiko: subjektu ez autonomoa	10
2.2. Heroi homerikoa: Akiles, balio moralen ordezkari.....	14
3. Gizaki mitikoen jarrera hausnarkorra eta subjektibotasuna.....	16
4. Olerki homerikoak, <i>polis</i> en isla?	21
5. Ondorioak	28
Bibliografia	30

0. Sarrera

Mendebaldeko literaturaren oinarrian daude Homerori esleitutako lanak: *Iliada* eta *Odisea*. Hauei buruz lan ugari argitaratu izan dira, olerkien alderdi ezberdinetan arreta jartzen dutenak: metrika, autoretza, pertsonaien psikologia, istorioen nondik-norakoak, etab. Pertsonaien psikologiaren eta kontakizunen nondik-norakoei buruz interpretazio jakin bat nagusitu izan da, zeinaren arabera pertsonaia homerikoak, heroiak zehazki, patuaren eta jainkoen menpe aritzen diren. Tradizionala bilakatu den ikuspegi hau jarraitzen duten interpretazioek adierazten dute Aro Mizenikoan zein garai homerikoan - Aro Arkaikoan- zegoen eredu sozial hierarkikoa bermatzeko olerkiak erabiltzen zirela, olerkiak errealitatearen isla zirela argudiatuz.

Pertsonaiei dagokienez, interpretazio tradizionala heroi homerikoen indibidualismoan oinarritzen da, eta beraz, interpretazio honek sostengatzen du balio moral indibidualistak hedatzeko kondairak erabiltzen zirela. Indibidualismoak heroiaren garaipen pertsonalei arreta jartzen zien eta errege mizenikoa horretaz baliatzen zen bere botereari zilegitasuna emateko. Balio horiek gizarte mizenikoan norbanakoaren interesei erantzuten zieten; erregearen kasuan, honek subiranotasuna mantendu nahi zuen gainerako herritarrak bere botereari subordinatzearen ondorioz eta desberdintasun juridiko zein soziala sendotuz. Erregea heroi homerikoarekin alderatzen zenez, interpretazio tradizionalaren ustetan Akilesek bere interes pertsonalak bultzatuta jokatzeko du *Iliadan*, ez ordea kolektibo baten mesedetara.

Lanean zehar interpretazio indibidualista horren irakurketa kritikoa eskainiko da. Izan ere, Homeroren garaian kolektibitatearen baitan eta honek ahalbidetzen duen autonomiari esker, heroiak erabakiak hartzeko gai da, eta erabaki horiek kolektiboaren mesedetara hartu. Beraz, autonomia kontzientzia kolektibo bati esker subjektuak bere kabuz jarduteko lortzen duen gaitasuna da eta bere jardunak besteekiko duen eragina kontuan hartuz jarrera kritikoa garatzen du. Ondorioz, indibidualismoa Aro Mizenikoa ezaugarritzen zuen balio morala da, eta autonomia Aro Arkaikoan kolektibitateak ematen zuen gaitasun bat zen.

Esandakoari jarraiki, badaude ikuspegi tradizioaletik at kokatzen diren interpretazioak eta hegemonikoa den hipotesia alde batera uzten dutenak. Nahiz eta

irakurketa tradizionalak multzo berean sartu kondairek izandako eragina Aro Mizenikoaren eta Aro Arkaikoren gizartearengan, indibidualismoa, esan bezala, Aro Mizenikoan indarrean zegoen monarkia ereduari dagokien balio moralen oinarria zen, sistema guztiz hierarkikoa eta autoritarioa zena. Kolektibitatea aldiz, Aro Arkaikoan eta bereziki Aro Klasikoan zeuden balio moralen ezaugarri esanguratsuena da, hierarkikotasun mizenikoa pixkanaka atzean uzten duena.

Hau esanda, lanaren **hipotesia** honakoa da: *polisek* posible egiten dituzten egoera sozialei esker (hala nola, eztabaidetarako espazioak, herritarren arteko berdintasun juridikoa, edo komunitate baten parte izatearen sentimendua), pertsonaia homerikoak, heroiak zehazki, gizabanako etikoak dira, gaitasun deliberatiboa eta autonomia dutenak eta ondorioz, haien ekintzen gaineko ardura dutenak.

Hortaz, hipotesia erdiesteko garatuko den **helburua** hau da: interpretazio tradizionalak ematen dituen argudioak eztabaidatzea eta eztabaidaketa hori ahalbidetzen duen ideian sakontzea, *polisak* duen eragina kondairen egituraketan, alegia. Interpretazio horrek dio jainkoen esku hartzea erabakigarria dela gertakarien emaitzan, pertsonaiek pasioek bultzatuta eta senez jokatzen dutela, eta idazkerarik gabeko gizarteak pertsonaien pentsamoldean eragina duela. Baina, ikusiko denez, egitura sozialak duen eragina erabakigarria izango da tradizioak hedatutako interpretazioari uko egiteko.

Helburu nagusia betetzeko asmoz, hauek dira baliatuko diren **helburu instrumentalak**:

- Lanean zehar interpretazio indibidualista horren irakurketa kritikoa eskainiko da.
- Aro Mizenikoaren balioak garai homerikora egokitu ahal ez direla arrazoitzea, horrek guztiak pertsonaien psikologian edukiko lituzkeen aldaketak aintzat hartuz.
- Pertsonaiek jainkoen zein patuaren nahiei une oro men egiten ez dietela frogatzea, jainkoak bigarren maila batean kokatuta daudelarik.
- *Polisetan* garatzen den kolektibitateak pertsonaien autonomian eta hausnartzeko gaitasunean izan zezaken eragina azaltzea.

Helburuak betetzearren, lana bost ataletan egituratuta dago. Lehenengoan, obren testuinguru historikoari buruz azalpen xume bat emango da. Lanean zehar aro

ezberdinetaz hitz egingo denez, eta aro bakoitzean balio moral ezberdinak indarrean zeudenez, ezinbestekoa da olerkien sorrera data eta idatziz jasotako data ondo bereiztea.

Bigarrean, kondairen interpretazio tradizionala zertan datzan azalduko da bi azpiatal bereiziz. Lehenengo azpi-atalean tradizioak kondairetan agertzen den koiuntura sozio-politikoaren zein moduan interpretatu duen adieraziko da eta jarraian, koiuntura horretan heroi homerikoak betetzen duen papera behatuko da.

Hirugarren atalean hipotesia frogatzeko lehen ideiak azalduko dira. Pertsonaien subjektibotasuna eta autonomia nabarmenduko dira, bigarren atalean adieraziko denaren kontrara. Gainera, jainkoek istorioetan duten esku hartzea ere zalantzan jarriko da. Helburu honen baitan azaldu nahi da pertsonaia homerikoek islatzen dituzten balio moralek garai homerikoaren egitura politiko eta sozialarekin duten lotura eta pertsonaiak hartzen dituzten erabakiekiko arbitrarioak ez direla, baizik eta arrazoi justifikatuen ondorio direla. Hau gauzatzeko, Aro Arkaikoari dagokion izaera soziala aztertu behar da, Homerok obrak idatzi zituen garaia baita. Ez da, ordea, olerkien irakurketa sortu ziren garaira mugatu behar, aro batetik bestera aldaketa sozial, politiko eta kulturalak eman baitziren, eta hauek idatzien konposaketan eragina izan zutelako.

Laugarren atalean, *polisek* kondairen konposizioetan izan ahal zuten eraginaz arituko gara. Modu horretan, Aro Mizenikoan indarrean zeuden *oikosak* eta Aro Arkaikoan zeuden *polisak* alderatuko dira *Iliadan* zein *Odisean* behatu daitezkeen adibideak emanez. Beraz, interpretazio tradizioaletik harago doan interpretazioari oinarri historikoa eta beraz, politikoa emango zaio, monarkia mizenikoa eta *polisa* aurrez aurre jarriz eta hauek indartzen zituzten balioak aztertuz.

Azkenik, ikuspegi ezberdinak aztertuz, tradizionala eta heterodoxoa, Homeroren idatzietatik atera daitezkeen ondorioak emango dira eta kultura homerikoari buruzko irakurketa tradizionala zalantzan jarriko da aipatutako faktoreak aztertuz: gizartearen izaera sozio-politikoaren, pertsonaien papera, jainkoen eta heroiaren arteko harremana, eta egitura sozialaren eragina pertsonaien psikologian eta jarreran.

Erabilitako metodologiari dagokionez, olerkietan ematen diren egoerak bestelako autoreen ikuspuntuak kontuan hartuz landu izan dira, lanaren hipotesia indartzen dutenak, zein tradizioak dioena azaltzen laguntzen dutenak. Gai hau landu duten autoreen lanak

erreferentzia moduan ere erabili izan dira, edukiari buruz informazio gehiago izateko asmoz. Horretaz gain, Homeroren obren pasarte zehatzak zuzenean hartu izan dira.

Lanean zehar agertzen diren itzulpenei dagokienez, grekeratik modu literalenean eginak dira. Beste zenbait kasuetan, jakitunek egindako itzulpenak ematen dira, bertsoen bestelako interpretazio bat emate aldera, edota literaltasunetik ihes egiten duten itzulpenek hobeto adierazten dutelako olerkiak adierazi nahi duena; kasu horietan autoretza behar den moduan adieraziko da.

1. *Iliada* eta *Odisearen* testuinguru historikoa

Esan bezala, lan honek Homeroren idatzietan jartzen du arreta. Horregatik, komenigarria da idatzi horiek datatzea garaiko koiuntura sozialari buruz hitz egiterakoan zertaz ari garen ulertzeko, hori izango baita aipatutako lanaren helburuaren gakoa, lan literarioak ezin baitira modu ahistoriko batean interpretatu. Horrenbestez, olerkiak aztertzerako orduan ezinbestekoa da kontuan izatea zer-nolako gizartea zegoen indarrean hauek idatzi zirenean, gizarte eredu hori osatzen zuten balio moralek olerkien konposaketan eragin zuzena baitzuten.

Horrenbestez, tradizio literarioak hedatutako interpretazioan heroikoen jarraera nolakoa zen zalantzan jar daiteke. Heroiek gizarte homerikoak zituen ezaugarrien eragina jasan zituzten, *polis*en antolaketaren baitan kokatzen zirelarik. Beraz, ezin da pertsonaien izaera soilik monarkia mizenikoaren ezaugarrietara mugatu (indibidualismoa edota akritikotasuna, adb.). Vernantek ere herritarren -eta beraz, pertsonaia homerikoen- izaeraz eta jarreraz eta gizartearen arteko harremanaz hausnartzen du: “La dignidad del comportamiento tiene una significación institucional; exterioriza una actitud moral y un modo psicológico que se imponen como obligaciones”¹.

Homeroren *Iliada* eta *Odisea*² Mediterraneoaren inguruan sortutako tradizio literarioaren lehen lanak kontsideratzen dira. Dalbyk, honi, “grekerazko literatura

¹ Vernant, 1992, 104. orr.

² Eta Hesiodoren *Teogonia* eta *Lanak eta egunak*.

primitiboa”³ deritzo. “Lehen” obra hauen aurreko tradizio osoa ahozkoa zenez, guregana iritsi izan dira Homerok idatziz bildu zituelako eta mendeetan zehar kopiatu eta itzuli izan direlako, gaur egun ezagutzen dugun mendebaldeko literaturaren oinarria izanez. Beraz, tradizio luzeko olerki hauen sortze data esleitzea ez da erraza. Jakin izan da K. a. 520. urtean *Iliadaren* testuaren kopia bat ezaguna zela Atenasen, eta beraz, aurretik idatzita egon behar zela.⁴

Iritzi hedatuenak dio Homero K. a. VIII. mendean bizi izan zela, hortaz, olerkiak mende horretan idatzi zituen. Hala ere, *Iliada* eta *Odisea* aurretik existitzen ziren ahozko olerkien bilketa lirateke, eta hauek guztiak batu ondoren ezagutzen ditugun *Iliada* eta *Odisea* sortu ziren. Honela adierazten du Dalbyk:

Hemos de rechazar rotundamente la idea de que el poema [*Iliada* bere osotasunean] existía ya, (...) antes del acto de composición que tuvo como resultado la *Iliada* que hoy conocemos. (...) no existe la menor prueba ni la más mínima posibilidad de que un poema de aquella longitud pudiera representarse en circunstancias normales dentro de la tradición griega de los siglos VIII y VII a. C. (...) Lo que sí existía previamente era un enorme repertorio de temas, episodios y personajes que muchos cantores recogían constantemente en sus actuaciones épicas. (...) El poeta de la *Iliada* era -tuvo que serlo- un experto en dicho repertorio.⁵

Beraz, olerkiak Aro Mizenikoan osatuak izan ziren, ahozko konposizioaren baitan. Modu horretan, herritarren artean garaiko egitura soziala eta balio moralak bermatzeko aedoek olerki hauek abesten zituzten, horretarako genero nagusia epika izanez. Homerok VIII. mendean idatziz bildu zituen, bere obretan aurreko garaiarekiko eman ziren aldaketa sozio-politikoaren eta moralaren pintzeladak ikus daitezke.

³ Dalby, 2008, 39. orr.

⁴ Honi buruz Ortega honela adierazten du: “la datación de «Homero» puede ser temprana: siglo IX (...) o la (datación) más extendida de la segunda mitad del siglo VIII o más intermedia, como la propuesta de West (2014: 1-2), quien data el poema en el último tercio del siglo VII a. C. Por último, otros autores la retrasan hasta mediados del siglo VI a. C.” Ortega, B. (2019). «Introducción», In Homero, *Odisea*. Madrid: Gredos. 18. orr.

⁵ Dalby, op. cit., 2008, 149. orr.

2. Olerki homerikoen ikuspegi tradizionala

Lanaren hipotesia hobeto ulertzeko, gaur arte olerkien inguruan garatutako interpretazio tradizionala azaldu eta zalantzan jarriko da, idazkera ezak gizarte homerikoan eta gizabanakoaren pentsamoldean duen eragina aipatuz.

Ezaguna denez, historian zehar Homeroren obren irakurketek kontaketen izaera mitikoa dela babestu izan dute, non pertsonaiek jainkoekiko duten menpekotasuna berresten den eta horren ondorioz, gizaki mitikoek duten hausnartzeko gaitasun falta bermatzen den. Autore anitz agertu dira hausnarketarako gaitasun eza bermatzen duen teoria honen babesean, aipagarrienetakoa Havelock izanez. Honen aburuz, tradizio oralaren baitan bizi den gizartea ez da idazkera duena hausnartzeko bezain gai; eta hori kondairen pertsonaien izaeran islatuta geratu zen. Gauzak horrela, Havelockek ez bakarrik epikari buruz, baizik eta ahozko ekoizpen poetiko osoari buruz eta idazkerarik gabeko herrien pentsamoldeari buruz teoria bat garatzen du ⁶.

2.1. Interpretazio sozio-politikoa: subjektu ez autonomoa

Havelocken teoriari jarraiki, soilik idatzitako obra da obra literario bat. Idatzita dagoen edukiari kritika egiteko eta pentsamendu arrazoiduna garatzeko baldintzak idazkerak sortzen ditu. Hau da, esandakoa edo egindakoari buruz modu kritikoan hausnartzeko gaitasunari “pentsamendu arrazoiduna” deritzogu. Honela dio Havelockek: “El discurso alfabetizado (...) permitía un lenguaje innovador (...) que el lector atento podía reconocer con toda tranquilidad, «asimilarlos» y «meditarlos». Bajo condiciones acústicas, tal operación no era posible”⁷.

Beraz, ahozko obra formulismoen bilketa hutsa da, kolektibitateari zentzu eta kohesio bat ematen dioten mitoak erreproduzitzera mugatzen dena eta haren helburua errealitatea ezagutzea edota zalantzan jartzea ez dena, baizik eta herria patroi konduktualen bitartez doktrinatzeari. Era berean, pertsonaiek ordezkatzeko dituzten balio moralak gizartearengan erreproduzitzea du helburu poetak. Hau horrela izanik, *Iliada* zein *Odisea* idatzita dauden arren, ahozko obren ezaugarriak barne biltzen ditu, tradizio

⁶ Rodríguez, 2010, 23. orr.

⁷ Havelock, 1996, 148. orr.

horren emaitza baitira (dikzio formularra eta epitetoak adb., poetek erabilitako baliabide memoteknikoak).

Era honetan, tradizio orala, idazkerarik gabeko “literatura” eta *razionaltasun* falta eskutik doaz Havelocken aburuz. *Razionaltasun* falta heroi homerikoen jarreran somatu daitekeela dio Havelocken teoriak eta baita interpretazio tradizionalak. Modu horretan, heroiak senez eta jarrera bultzakorraz jokutzen du, patuak ezarritakoa zein jainkoen borondatea modu horretan ahalbidetzen dutelarik. Hau da, heroiak ez dira gai haien ekintzen gaineko ardura hartzeko; hartzen dituzten erabakiak eta burutzen dituzten ekintzak patuak zein jainkoek zuzentzen dituzte. Hau guztia esaldi batean biltzen du autoreak: “los libros y su tradición de cultura alfabética fijan las formas mentales de esa cultura, limitándolas o ensanchándolas”⁸. Esaldi horren bidez Havelockek azaltzen du pentsamolde kultural baten maximoa idazkerak ahalbidetzen duela, hau da, hizkuntzaren forma gorena ematen dela garaiko munduaren ikuskera islatzen duen bitartean.

Gauzak horrela, Havelockek zuzenean lotzen du izaera irrazionala garai homeriko aurrefilosofikoarekin; baina zerk ezaugarritzen du gizarte aurrefilosofiko bat? Filosofia sortu aurretik, antolamendu soziala modu sakratu batean ezarria zegoen, zeinean tradizioa zen ardatza, Homeroren eta Hesiodoren idatziei eta oholtxo mizenikoei esker egun ezagutzen dugun tradizioa, alegia (mitologia, egitura sozial sakratua, erregearen autoritarismoa eta esparru anitzen gaineko boterea, monarkia bermatzen zituzten balio moralak, etab.). Havelockek garai aurrefilosofikoan Homeroren obrak kokatzen ditu, baina egindako deskribapen honekin identifikatzen dena Aro Mizenikoko gizarte eredua da. Aurrerago esango den moduan, *Iliada* eta *Odisea* ahoz sortu ziren garaia eta Homerok idatziz utzitako garaia bi garai ezberdin dira, gizarte-mota ezberdinekin. Hortaz, nahiz eta Homeroren garaia aurrefilosofikoa izan, horrek ez du arrazoitzeko gaitasuna ez zegoenik adierazten. Hein handi batean, esan daitekeelako Homeroren garaietan eman ziren aldaketek pertsonaien izaeran eragin zutela. Beraz, Havelockek aipatutako garai aurrefilosofikoak dituen ezaugarriak ez dira jada Homeroren garaietan mantentzen, eta honi lotutako *razionaltasun* falta zegoenik ezin da bermatu.

Homerok ezagututako bizimodu aurrefilosofiko irrazionala aldatu zuena ahozkotasetatik idazkerarako trantsizioa izan zen Havelocken aburuz. Ideia honi buruz

⁸ Havelock, 1994, 134. orr.

zera adierazten du Rodríguezek: “El contraste de “oralidad” con “escritura” implica, según este autor [Havelock], una contraposición de mentalidades, en la que la primera se caracteriza como “primitiva””⁹, gizarte primitibo hori aurrefilosofikoa izanez eta ezaugarri primitiboa akritikotasuna izanik. Hortaz, zalantzan jarri behar duguna ideia hau da. Gizarte aurrefilosofikoa –idazkerarik ez duena- berez irrazionala da, eta hori Homeroren olerkietan islatuta ikus daiteke? Hori horrela balitz pertsonaiek egoerak kuestionatu gabe erabakiak hartuko lituzkete, modu akritiko batean. Baina lanean aurrera egin ahala egiaztatuko da hori ez dela horrela. Gainera, Aro Klasikoaren filosofo garrantzitsuenetako bat Sokrates izan zen. Sokrates agrafoa zen eta Platonen elkarrizketen bitartez iritsi zaizkigu bere ideiak. Beraz, idazkerarik gabe ideia abstraktu eta konplexuak garatzea eta helaraztea posible izan zen.

Havelockek garatutako ildo berdinetik jarraituz eta Homeroren garaiko gizarte arkaikoa idazkerarik garatu gabeko gizartea dela aitortuz gero, gaitasun kritikorik gabeko eta hausnartzeko gaitasunik gabeko gizarteaz ari gara. Hau horrela, uler daiteke Aro Mizenikoaren eta Arkaikoaren balio moralak berdinak izan ahal zirela, eta bi aroetan balio horiek olerki homerikoen bitartez hedatu zirela eta biztanleria balio horien menpe hezi zela. Tradizio literario osoan zehar eman den olerki homerikoen eta gizartearen egituraren arteko lotura azaltzea da azpi puntu honen eginkizuna, esan den moduan, ezin delako lan literario bat sortu zen garaitik at aztertu.

Adierazi izan da Homerok bildutako kondairak egitura sozial baten izaera hierarkiko idealaren islada direla. ‘Hierarkia’ etimologikoki behatuz hobeto uler daiteke nolakoa zen olerkietan agertzen den gizartearen izaera, Havelockek antolamendu soziala modu sakratu batean ezarria zegoela adierazten duela esan baita. Grekeratik dator hitz konposatu hau: “ἱερά” (*hiera*, “sakratua”) eta “ἀρχή” (*arkhe*, “gubernua” edo “boterea”) “-ια” (*ia*) sustantiboak sortzeko atzizkia gehituz euskarazko “hierarkia” hitza ematen du. Literalki honek esan nahi duena “gubernu sakratua” da. Beraz, erlijioa eta politika zuzenean lotuta daudela ikusten da. Etimologiaz gain, oholtxoetan kargu politikoen izenak aurkitu izan dira. Bertan, soberania politikoa eta erlijiosoa zuena *wanax* zen, errege-apaizaren funtzioa betetzen zuena. Garai homerikoan aldiz, errege funtzioa hartzen zuena *basileus* zen, izandako kargu erlijiosoa (beste kargu batzuen artean)

⁹ Rodríguez, op. cit., 2010, 42. orr.

bestelako figura batzuegan delegatuz. Sakratua zela esateak zilegitasuna esleitzen zion erregeari, jainkoekin harremanetan egoteak nolabaiteko autoritatea ematen baitzion.

Gainera, modu subordinatu batean ematen ziren biztanleen arteko harremanak. Harreman hauek, zentzu batean, erregeak jainkoekiko zuen gertutasunagatik egituratzen ziren eta erregeak hainbat funtzio betetzen zituen modu autoritarioan. Gauzak horrela, herritarren eta aristokraziaren artean ez zegoen berdintasun ez politiko, ez erlijioso, ez juridikorik.¹⁰

Vernantek Homerok deskribatutako gizartea posible izan zela adierazten du, eta hierarkia hitza erabiltzen du gizarte greko arkaikoa ere deskribatzerako orduan: “Los dioses forman parte del mismo universo que los hombres, pero de un universo jerarquizado (...). En este sentido la sociedad que forman las potencias del más allá (jainkoak) prolonga la organización jerárquica de la sociedad humana tal como aparece en Homero”¹¹. Bestalde, Havelockek jainkoen gizarteaz ere hitz egiten du:

[Los dioses] aman, riñen, gobiernan y obedecen, en situaciones y tramas que imitan la tragedia política de los hombres. (...) los relatos a ellos concernientes se hacen paradigmáticos del funcionamiento de las leyes públicas y privadas cuya representación corresponde a la épica. Los dioses integran una segunda sociedad, que se superpone a la sociedad de los héroes.¹²

Nahiz eta egitura hierarkiko bati buruz ez duen hitz egiten, aitortzen du badagoela jainkoen egitura gainjarria. Modu honetan, Homerok idatzitako olerkiak bere garaiko gizartearen ordena mantentzeko erabiliak zirela berresten dute bi autoreek, botere erlijiosoan (honen izaera sakratua kontuan hartuta) oinarritutako egitura berdina mantenduz eta istorioetan jainkoek gertakarietan esku hartuz.

Azaldutako olerkien egitura hierarkiko horri zilegitasuna emateko, aedoek masamugimenduari zuzendutako olerkiak konposatzen zituzten, Ortegaren hitzetan: “Estos [los aedos] elaboraban, de forma improvisada y sin apoyo de la escritura, poemas con los relatos de las hazañas heroicas de un pasado situado en el mundo micénico (...) [que]

¹⁰ Berdintasun hau ere ez zen ematen erreinu ezberdinetako aristokraten artean. *Polisen* baitan, aldiz, *polis* ezberdinetako aristokraten artean berdintasun hori bai existitzen zen.

¹¹ Vernant, 2003, 97-98. orr.

¹² Havelock, op. cit., 1994, 165. orr.

sobrevivió en la poesía épica (...)”¹³. Ekintza gogoangarri horiek monarkiaren egitura pean zeuden rol sozialak betikotzen laguntzen zuten¹⁴. Tradizioaren bitartez aedoan olerkiak Homerorengana heldu eta bertan azaltzen diren kondairak baliatuz, biztanleria hezi eta ordena mantentzen zela uste du Havelockek: “El poeta (...) ejercía un cierto control cultural sobre su comunidad”¹⁵. Kondaira mitologiko hauei Vernantek “mitos de soberanía” deitzen die erregeek hauetaz baliatuz burujabetza mantentzen baitzuen¹⁶.

Hala ere, honen guztiaren aurrean zenbait zalantza sor daiteke. Olerkietan agertzen diren balio moralen betikotasuna mendeetan zehar bermatzeko, olerkiak sortuak ziren garaiko balioak eta egitura soziala eta Homeroren garaikoak berdinak izan behar ziren; beraz, hauek berdinak zirenik esan daiteke? Aro batetik bestera ez ziren egitura soziala eta balio moralak aldatu? *Iliadan* eta *Odisean* Aro Mizenikoaren balioak islatzen jarraitzen dira, ala Homeroren garaiko gizarte eta balioen ezaugarrien pintzeladak somatzen dira?

2.2. Heroi homerikoa: Akiles, balio moralen ordezkari

Iliadan heroiaren itxura hartzen dutenak errege mizenikoak, aristokrata militarrek edo nobleak dira¹⁷, hauen artean protagonista Akiles izanik, balio moralen ordezkari nagusia.¹⁸ Ahozko tradizio baten pean kokatzen denez interpretazio hau, pertsonaia homerikoek senez jokatzen dute patuak ezarritako ekintzak burutuz eta, modu horretan, dagokien rol soziala asetuz; kasu honetan, heroi epikoarena. Jada azaldu den idazkerarik gabeko gizartearen izaera eta hausnarketarako gaitasun eza zuzenean lotuta daude jainkoek kondairetan duten esku hartzearekin. Ideia honen baitan, mortalak txotxongiloak baino gehiago ez balira bezala ulertzen da eta pertsonaiek haien ekintzen gaineko ardurarik hartzen ez dutela berresten da, hauek duten subjektibotasuna baliogabetuz.

¹³ Ortega, B. op. cit., 2019. «Introducción», In Homero, *Odisea*. Madrid: Gredos. 6. orr.

¹⁴ Heroi homerikoak duen *agazósaren* (ἀγαθός) papera, *aretéari* (ἀρετή) lotuta, adibidez.

¹⁵ Havelock, op. cit., 1994. 138. orr.

¹⁶ “La vida social aparece centrada en torno del palacio, cuya función es religiosa, política, militar, administrativa y económica (...). El rey concentra y reúne en su persona todos los elementos de poder, todos los aspectos de la soberanía”. (Vernant, op. cit., 1992, 36. orr.).

¹⁷ Interpretazio ezberdinak ematen dira pertsonaia hauen tituluei dagokienez.

¹⁸ Gauza bera *Odisean*, Odiseo protagonista izanik.

Havelockek azpimarratzen du ahozko kulturak gizabanakoen mentalitatean mugak zehazten dituela, eta ondorioz, hauek ez direla gai «ezagutza» modu abstraktu batean ulertzeko¹⁹. *Logosa* den eragiketa mentala, edo berak dioen moduan, arrazoiketarako gaitasuna, Platon eta sofistek eratu zuten. Beraz, *logos* hau diskurtso prosaiko eta alfabetizatu batean garatu daiteke, eta ez ordea, ahozko testuinguru batean²⁰. Hau horrela, Aro Mizenikoaren mentalitatea eta garai homerikoarena parean kokatzen ditu autoreak, aldaketa Aro Klasikoan ematen delarik prosaren eta filosofiaren garapenarekin. Honekin guztiarekin esan nahi da Havelocken aburuz hausnarketarako gaitasun eza garai mizenikoaren eta garai homerikoaren ezaugarria dela.

Heroiaren rol sozialari dagokionez, Aro Mizenikoan heroia figurak ezinbesteko garrantzia zuen boteredunek haien posizioari sinesgarritasuna emateko eta jendetzaren aurrean itxura mantentzeko. *Iliadan* arreta jarritz, Akilesek sozialki egokitu zaion paperari eusten diola baieztatzen du irakurketa tradizionalak. Hori da, alegia, olerkiak mendeetan zehar jendetzaren aurreran aurkeztearen helburua: herritar bakoitzak dagokion rol soziala jarrai dezan ezarritako balioen baitan (oligarkia aristokrataren loriaren aurrean herri xehearen sumisioa bermatzeko, adb.).

Heroien rola *agathós* eta *esthlós*²¹ hitzekin erlazionatzen da eta esleitutako betebeharrak burutzean bertutea (*areté*) eskuratzen dute. *Agathós* eta *esthlós* hitzek estatus sozial bati egiten diote erreferentzia eta heroiak betebeharrak behar bezala gauzatuz gero eredu bezala hartuko da bere gizartean, nahiz eta -edo, batez ere- behar horiek gauzatzen edo gauzatu ostean hiltzen bada. Hau horrela, Leivaren hitzetan: “para que el héroe pierda su categoría [social] debe ser cobarde, abandonar sus tropas o faltar, de cualquier otra forma, al código de conducta propio de un *agathós*”²². Hori da, azken buruan, heroi homerikoak betetzen duen rola.

¹⁹ Havelock, 1994, 174. orr.

²⁰ Havelock, op. cit., 1996, 151. orr.

²¹ Hitz hauek itzultzeko forma onartuenak “ona” eta “noblea” dira. MacIntyrek Adkinsen hitzak erabiltzen ditu *agathós* deskribatzeko: “Para ser *agathós*, dice W. H. Adniks, se debe ser valeroso, hábil y afortunado en la guerra y en la paz; se debe poseer la riqueza y el ocio que constituyen simultáneamente las condiciones necesarias para el desarrollo de esas habilidades y la recompensa natural de su utilización afortunada” (MacIntyre, 1991, 15-16. orr.)

²² Leiva, 2018, 165. orr.

Egitura politikoan arreta jarritz, Aro Mizenastarrean heroi homerikoaren baliokidea errege sakratua zen (gogoratu gizarte hierarkikoan kokatzen dugula hau, eta zer esan nahi duen “hierarkia”). Honek heroi homerikoaren handitasunarekin identifikatua izatea nahi zuen bere prestigioa mantentzeko. Aro Arkaikoan, aldiz, errege aristokrata militarra zen paper horrekin identifikatzen zena²³.

Aro Mizenikoan botere sozio-politikoak oinarri jainkotiarra (eta sakratua) zuen; Aro Arkaikoan aldiz, aristokraziaren maila ekonomikoa zen boterea esleitzen zuena (erlijioaren garrantziarekiko hausturaren ondorioz). Beraz, Aro Mizenikoan indarrean zegoen antolaketa monarkikoari zilegitasuna emateko erabiliak izan ziren olerki epikoak, baina Aro Arkaikoan bestelako antolaketa sozio-politiko batekin topatzen gara. Beraz, orain arte Havelockek garatutako teoria zein puntura arte mantendu daiteke? Gizaki mitikoek esleitutako rola jarraitzera mugatuta daude?

3. Gizaki mitikoen jarrera hausnarkorra eta subjektibotasuna

Aurreko galderei erantzuteko Rodríguezek garatutako tesia hartuko da abiapuntutzat. Honen aburuz, pertsonaia homerikoak gizabanako etikoak direla kontsidera daiteke, gaitasun deliberatiboa dutenak, autonomia eta, ondorioz, haien ekintzen gaineko ardura dutenak²⁴. Ideia hau bigarren puntuan azaldutako irakurketa tradizionalari guztiz kontrajartzen zaio, Aro Mizenikoaren balio moral erlijiosoak guztiz baztertu gabe Aro Arkaikoan gizakiek hausnartzeko duten gaitasunaren garrantzia aitortuz.

Olerki homerikoak ahozko gizarte aurrefilosofiko baten emaitza izatea ez dago zuzenean lotuta pertsonaiek aurrera eramandako ekintzen gainean hausnartzeko gaitasun ezarekin, Havelockek baieztatzen duen kontrara. Ortegaren hitzak gogora ekarriz, aedoek modu inprobisatu batean sortzen zituzten olerkiak, idazkeraren laguntzarik gabe, iragan mizeniko batean kokatutako heroiek burututako ekintza gogoangarriak nabarmenduz. Obrak bat-bateko konposizioaren emaitza zirela eta idazkeraren laguntzarik gabe

²³ Bi aroen arteko egitura politikoaren aldaketaren froga da hau, non erregea Aro Mizenikoko *wanaxa* zen eta Aro Arkaikoko *basileusari* (beste kargu batzuk zituen erregea litzatekena) lekua utzi zion zenbait botere bestelako karguetan delegatuz.

²⁴ Rodríguez, op. cit., 2010, 77. orr.

konposatuak zirela esateak adierazgarria da arrazoi honengatik: olerkietan agertzen diren eztabaida *razionalen* eszenak -hau da, ez soilik emozioek gidatuak-, asanbladak agertzen diren eszenak edo jainkoen borondatea zalantzan jartzen dituztenak argi adierazten dute aedoek egoera horiek guztiak haien irudimenean garatzeko, ondoren zalantzan jartzeko eta azkenik buruz ikasi ostean ahoz adierazteko gai zirela, -horrek guztiak eskatzen duen prozesu kognitiboa kontuan hartuta-, eta herriaren aurrean kuestionatutako botere-harremanak ez ziren arrotzak herritarrentzat (jainkoen borondatearen aurkako jarrera, adb.).

Aurretik aipatutako gizaki mitikoek patuari eta jainkoen nahiei erantzuten dietelaren harira, Homeroren olerkietan jainkoen presentziak bigarren plano bat hartzen du eta eszena nagusietan gizakiek okupatzen dute espazio gehiena. Honekin esan nahi dena da gizakien ekintzek bideratzen dutela trama, fokua hauetan jartzen baita. Jainkoen esku hartzea baliabide literario baten antzera interpretatu daiteke,²⁵ eta tradizio literarioari jarraitzeko baliabide gisa ulertu. Honi buruz Havelockek ere hausnartzen du eta esandakoari arrazoia ematen dio aipatutako hitz hauen bitartez:

“(...) estos dioses, para ser recordados (...), tienen que incorporarse a su propia saga (...). Aman, riñen, gobiernan y obedecen, en situaciones y tramas que imitan la tragedia política de los hombres.”

Azpimarragarria suertatzen da jainkoak direla gizakiak imitatzen dituztenak. Honela jarraitzen du:

“(...). Los dioses integran una segunda sociedad, que se superpone a la sociedad de los héroes. (...) este razonamiento (...) no tiene en cuenta la divinidad como objeto de adoración y culto. (...) el culto permanece siempre en los márgenes de la historia, sin afectar nunca a la parte central.”²⁶

Hau horrela, Homerok olerkiak idazterakoan mitikotasuna mantentzeko ezinbestekoa zuen jainkoen presentzia bermatzea, bere garaian ez baitzegoen Aro Mizenikoan zegoen jainkoekiko harreman hain estua. Beraz, teoria tradizionalak olerkietan jainkoekiko menpekotasuna defendatzen du, baina *Iliadaren* irakurketa sakon

²⁵ Aro Arkaikoan eta Klasikoan jainkoak agertzearen baliabidea modu estilistiko batean erabiltzen jarraituko da olerkiak konposatzean (adb., Kalimakoren Himno Homerikoak K. a. IV. mendean).

²⁶ Havelock, op. cit., 1994, 165-166. orr.

bat eginez gero, ohartu gaitezke baieztapen hori ez dela ehuneko ehunean zehatza. Gainera, aipatu den moduan, pertsonaia homerikoek ez diete une oro jainkoen desirei men egiten eta ezarritako rol sozialei ez zaie zorrotasunez jarraitzen.

Hau horrela ez balitz, ez litzateke posible esatea Akilesen haserrea olerkiaren gai nagusia dela eta honek trama bideratzen duela. Gainera, haserreak motibazio gizatiarra du, eta ez jainkotiarra. Olerkiaren hasieran esaten den moduan, “Μῆνιν ἄειδε θεὰ Πηληϊάδεω Ἀχιλῆος / (...) Διὸς δ' ἐτελείετο βουλή / (...) ἐρίσαντε” (*Il.* I, 1-6). Honela itzuliko litzateke: “Abes ezazu, jainkosa, Akiles Pelidaren haserrea / (...) horrela Zeusen plana bete zen / (...) eztabaidaren ondoren”. Pasarte honek adierazten du jainkoek badutela nolabaiteko esku hartzea, baina “Zeusen plana” Akilesen haserrea piztu ondoren, hau da “eztabaidaren ondoren” martxan jarri eta bete zen. Modu horretan, “Pelidaren haserrea” ez da Zeusen borondateak eragindakoa, baizik eta Agamemnon eta Akilesen arteko eztabaidaren ondorioa da, emozio gizatiarra lehenengo mailan kokatuz eta gertaeren abiarazlea dela irudikatuz. Bereziki azpimarragarria da pasarte hau, *Iliadaren* hasiera izateaz gain, obra osoaren erdigunean kokatzen delako Akilesen haserrea, honek garrantzi berezia hartzen duelarik.

Jada aipamen xume bat egin zaio jainkoen eta gizaki mitikoen arteko harremanari, eta hemendik aurrera harreman horretan sakonduko da. Horren helburua pertsonaia homerikoek jainkoekiko duten ustezko menpekotasuna gezurtatzea da, *Iliadan* ematen diren adibideak aztertuz. Modu honetan, pertsonaiek autonomia gehiago eskuratzen dute egoera jakin baten aurrean erabakiak hartzeko, kanpoko eraginik (jainkotiarra) eduki gabe.

Denboran zehar zabalduen izan den interpretazioak istorio mitikoetan jainkoen esku hartzea babestu izan du -jada esan den moduan-. Interpretazio honen arabera, jainkoek heroi homerikoaren ekintzak gidatzen dituzte eta haiek ezarritako planak modu horretan betetzen dira²⁷ esleitutako rol soziala asetuz.

Gauzak horrela, pertsonaiek ezin lukete haientzat ezarritako patuarengandik ihes egin, jainkoen borondatea beti betetzen baita. Hala ere, Vernantek zein Lasso de la Vegak

²⁷ Rodríguez, op. cit., 2010, 215. orr.

tradizio poetiko homerikoaren bestelako interpretazio bat egiten dute zalantzan jarriz zein punturaino heltzen den jainkoen esku hartzea heroiek jasaten duten patuan:

Unas veces Zeus parece fijar el destino, decidirlo; otras parece impotente ante el destino, tiene que someterse a él. Homero no conoce un destino fijado (...) por encima de Zeus (...); pero no reconoce tampoco dioses todopoderosos, libres de actuar siempre y en cualquier parte a su capricho.²⁸

(...) existe un Poder superior al suyo [Zeusi erreferentzia eginez] y contra el cual nada puede el más poderoso de los dioses, el Destino.²⁹

Hitz hauekin autoreek patua, neurri batean, jainkoen ahalmenetatik kanpo dagoela adierazten dute. Modu horretan, patuaren norabidea jainkoen eskuetatik libre geratzen bada, heroiek hau gidatzeko aukera eurenganatu dezakete. Gainera, Lasso de la Vegak “[el destino] en cuanto opera por medio de unos agentes que son los dioses, es idéntico a la voluntad de estos”³⁰ gehitzen du. Horregatik nahastu daiteke jainkoen borondatea patuarekin, bi botere ezberdin direla hauteman gabe. Patua eta jainkoen arteko harremanaren hausturaren ideia da, hain zuzen, Rodríguezek bere lanean (2010) azaltzen duena: pertsonaia homerikoak gai dira euren ekintzen gaineko arduraren hartzeko eta eragin dezaketen ondorioak aintzat hartzeko, patuak alde aurretik ezarritakoa gaindituz. Horrek pertsonaien subjektibotasuna existitzen dela pentsatzera eramanez gaitzake, erabakiak hartzeko autonomia esleitzen duena eta beraz, jainkoen mesedetara ehuneko ehunetan ez daudela erakusten du.

Hala eta guztiz ere, patuaren boterea gaindiezina da zenbait aspektutan, heriotzari dagokionez, adibidez. Baina, aldi berean, pertsonaiek haien ibilbidea hautatu dezakete, hala nola, borroka egitea ala ez. *Iliadan* Hefestoren hitzetan biltzen da ideia hau: “αἶ γὰρ μιν θανάτοιο δυσσηχέος ὧδε δυνάμην / νόσφιν ἀποκρύψαι, ὅτε μιν μόρος αἰνὸς ἰκάνοι,” (*Il.* XVIII, 464-465) honela itzulita: “nahiago nuke hau borrokaren iskanbilan heriotzatik urrun aldentzeko gai banintz, patu ikaragarria honengana heltzen denean”.³¹

²⁸ Vernant, op. cit., 2003, 98. orr.

²⁹ Lasso de la Vega, 1963, 268. orr.

³⁰ Lasso de la Vega, op. cit., 1963, 271. orr.

³¹ “Ojalá yo pudiera evitarle la muerte penosa / ese día que acuda a su lado el terrible destino”. Crespo Güemesen itzulpena, 1991. *Iliada*. Gredos.

Dena den, kontuan hartu behar dira pertsonaien ekintzak bideratzen dituzten sentimenduek eta emozioek (edo pasioek) heroien alderdi gizatiarra azaleratzen dutela³². Zentzu honetan, ez da soilik heroien ausardia eta gerrarako joera erdigunean jartzen, baizik eta gizakien berezko ezaugarriak obran egiteko nagusia hartzen dute, tradizioak jainkoei esleitutako jarrera autoritarioari gainjarriz. Sentimendu edo emozio horiek ez dira *razionaltasunez* ematen, baizik eta pasioek gidatzen dituzten pertsonaien bat-bateko ekintzak dira, hauen borondatek kanpo geratzen direnak. Honek ez du esan nahi pasioek gizakien ekintzak bideratzen ondorioz gizakiak irrazionalak direnik. Alderdi gizatiarrak protagonismoa hartzen du Homeroren lanetan, eta jainkoen izaerari kontrajartzen zaio; honela adierazten du Lasso de la Vegak: “Es incluso llamativo el contraste entre los dioses y héroes de la *Ilíada*: los héroes son con bastante frecuencia corteses, razonables y generosos; los dioses se muestran de ordinario groseros, violentos y bajamente crueles”³³. Honen adibide garbia da Priamo Akilesengana hurbiltzen denean bere semearen gorputza eskatzeko asmoz. Errukiak bultzatuta, Akilesek gorputza eman eta hamaika eguneko su-etenaren onartzen du (*Il.* XXIV, 477-677).

Esandakoaren harira, *Iliadan* Akilesek honela adierazten du: “ἀλλ' ὑμεῖς ἔρχεσθε καὶ ἀγγελίην ἀπόφασθε· / οὐ γὰρ πρὶν πολέμοιο μεδήσομαι αἱματόεντος (...)” (*Il.* IX, 649-650), itzulpena: “joan zaitezte eta zabaldu nire mezua: ez naiz gerra odoltsuaz arduratuko”. Argi ikusten da haserrearen ondorioz Akilesek bere betebeharraren sozialaren aurka doan erabakia hartzen duela. Bere ekintzen gaineko ardura eta kontzientzia erakusten du esaldi horrekin, olerkien interpretazio tradizionalak dioen kontrara, Akilesek patuak duen ustezko indarra zalantzan jartzen du. Kontziente da gerraren gaineko ardura duela, heroien papera betetzen duela eta beraz, bere erabakiak datozen gertakariak baldintzatzen dituela. Hala eta guztiz ere, *agathós* denez, bere erantzukizunari men egiten dio azkenean, saihestezina den patua betez: heriotza³⁴.

³² Akilesen haserrearen gertaeren abiarazlea dela kontsideratzen da. Beraz, bere emozioek eraginda Akilesek erabaki esanguratsuenak hartzen ditu, bere rol soziala eta balio heroiko tradizionalen aurka eginez gerrari uko egiten dionean.

³³ Lasso de la Vega, op. cit., 1963, 273. orr.

³⁴ Nahiz eta *Iliadan* ez aipatu Akilesen heriotza modu esplizituan, Hektorrek honela adierazten du: “ἤματι τῷ ὅτε κέν σε Πάρις καὶ Φοῖβος Ἀπόλλων / ἐσθλὸν ἔοντ' ὀλέσωσιν (...)” (*Il.* XXII, 359-360). Itzulpena: “Paris eta Febo Apolo hiltzen zaituzten egunean, adoretzua izanda ere”. Beraz, Akilesen heriotza gertu dagoela pentsatzera eramaten gaitu, eta mendeku pertsonal baten modukoa hartzen du Hektorrek, Paris bere

Haatik, Rodríguezek pertsonaien ekintzei erreferentzia egitean “motibazio bikoitzaz” hitz egiten du, zeinaren arabera “a la vez que hay intervención divina, el humano actúa por sí mismo”³⁵. Modu honetan, ez du ukatzen jainkoek parte hartzen dutenik, baizik eta pertsonaien autonomia defendatzen du jainkoekin harremanetan dauden bitartean. Horren adibide Diomedesen hitzak lirateke: “τότε δ' αὖτε μαχήσεται ὁπότε κέν μιν / θυμὸς ἐνὶ στήθεσσι ἀνώγη καὶ θεὸς ὄρη.” (*Il.* IX, 702-703). Itzulpena: “orduan berriz borrokatuko du bere bularrean arimak hala agintzen badio eta jainkoak horretara bultzatzen badio”. Gainera, *Odisean* Zeusek berak ere honela adierazten du: “ὦ πόποι, οἷον δὴ νῦν θεοὺς βροτοὶ αἰτιώωνται. / ἔξ ἡμέων γὰρ φασι κάκ' ἔμμεναι· οἱ δὲ καὶ αὐτοὶ / σφῆσι ἀτασθαλίησι ὑπὲρ μόνον ἄλγε' ἔχουσι”. (*Od.* I, 32-34). Honela itzulita: “Ai! Nola erruztatzen dituzte hilkorrek jainkoak. Esaten baitute haien gaitzak guregandik datozela; baina beraiek haien erotasunagatik haien penak patuaren kontra eskuratzen dituzte.”³⁶. Hitz hauekin egiaztatzen da aurreko paragrafoan esandako ideia: gizakiak jainkoei gainjartzen zaie.

Rodríguezen tesiari lotutako ideiekin amaitzeko, *Iliadaren* pasarte nagusietan jainkoen esku hartzea ageri ez dela dio³⁷. Hauen agerpena mizenastar tradizioaren eraginez ematen da, kondairei kutsu mitologikoa eransten diena eta tradizio kultural horri jarraipena ematen diona. Baina dibinitateen ustezko borondate ukaezinak ez du pertsonaien ekintzen gaineko eraginik, *Iliadan* gertatutakoa pertsonaien erabakien ondorioak dira.

4. Olerki homerikoak, *polis*en isla?

Orain arte olerkien interpretazioei buruz aritu gara, eta Akilesen moduko pertsonaia homerikoek beren ekintzen gaineko ardura dutela ikusi dugu. Baina zer dela eta ematen

anaia baita. Ondoren, *Odisean* (*Od.* III, 109; XI, 486, 557; XXIV, 15, 71-72, 93) modu esplizituagoan Akiles Troiako gerran hil dela adierazten da.

³⁵ Rodríguez, op. cit., 2010, 216. orr. Motibazio bikoitzaz ere Lasso de la Vegak (1963) hitz egiten du.

³⁶ Emilio Cresporen itzulpena: “Es de ver cómo inculpan los hombres sin tregua a los dioses achacándonos todos sus males. Y son ellos mismos lo que traen por sus propias locuras su exceso de penas”. (Rodríguez, 2010, 223. orr.).

³⁷ Rodríguez, op. cit., 2010, 217. orr.

dira gerrarekiko zalantza horiek heroi homerikoaren partetik? Ez litzateke gerran aritzea heroiaren helburua izan behar, hau kuestionatu gabe?³⁸ Gerra gauzatzen duen heroiak balio zuhur batzuekin egiten duela pentsa genezake, bizi den gizartean defendatzen diren balioak, hain zuzen.

Gizarte eredu hori, Aro Arkaikoan ezarrita zegoena, Homeroren olerkietan islatuta dago, Aro Mizenikoaren egitura sozialaren arrastoak guztiz desagertu gabe; Scullyren hitzetan: “as much as the poems are part of a long epic and formulaic tradition which looks back to an ancestral Mycenaean past, they also have been adapted to the conditions of Homer’s lifetime”³⁹. 2.1. *Interpretazio sozio-politiko: subjektu ez autonomoa* azpi atalean aipatzen da Vernantek uste duela Homeroren olerkiek deskribatzen duten gizarte-eredua Aro Arkaikora egokitzen dela, izaera jainkotiarrean oinarritzen den egitura hierarkiko bat jarraituz; baina ezaugarri horiek tradizioaren ondorioz biziraundako aurreko gizartearen aztarnak baino ez dira, eta ez Aro Arkaikoarenak non *agathósen* arteko berdintasuna somatzen hasten den.

Homeroren garaiko lehen ezaugarria *oikosen*⁴⁰ antolaketa sozialetik *polisen*⁴¹ antolaketara igaro izana da. Aldaketa horrek balio moral ezberdinak ezarri zituen zibilizazio grekoan, nagusiena kolektibitatea izanez: antolaketa sozial eta politiko berdinen parte izatea eta sentitzea, biztanleen arteko nortasun komun bat garatuz. Gauzak horrela, heroi homerikoak ez du modu indibidualean borrokatzen, bere herriaren ohorea mantentzeko asmoz egiten du, nahiz eta aldi berean bere ohorea (τιμή)⁴² mantendu

³⁸ Akilesek honela adierazten du: “τί δὲ δεῖ πολεμιζέμεναι Τρώεσσι / Ἀργείους;” (*Il.* IX, 337-338). Itzulpena: “Zergatik da beharrezkoa Argiboek Troiatarrekin gerra egin dezaten?”

³⁹ Scully, 1981, 1. orr.

⁴⁰ *Oikos* familiaren inguruan antolatzen zen egitura soziala zen. *Oikosak* etxea, abereak, baratzak, esklabuak eta ondasunak modu autarkikoan barne biltzen zituen. *Oikos* bakoitzak bere balio moralak, ohiturak eta jainkoekiko gurtza zehazten zituen. Bertan gizon helduenak zuen autoritatea. *Polisa*, aldiz, *oikosez* osatutako hiri edo herri bati egiten dio erreferentzia, zeinean balio moralak, ohituak, kultura eta erlijio komun bat existitzen den; bertan justizia eta berdintasunaren kontzeptuak garatu ziren.

⁴¹ “Homerik *polis* must be distinguished from the classical *polis* because of the informal and somewhat rudimentary nature of its political organisation and legal system” (Luce, 1978, 1. orr.). Hala ere, Aro Klasikoaren *polisen* balioak gizartean txertatzen hasi ziren Aro Arkaikoan.

⁴² *Timé*, “ohore” hitzarekin itzuli daitekeena, *agathósarekin* lotzen den kontzeptua da. Edozein ezin da *timé* izan, soilik bere ahalmenekin dagokion *oikosa* edo *polisa* defendatu dezakeena; beste baten baitan biziraun

nahi duen⁴³. Beraz, sentimendu komun bat agertzen da *polis*arekiko, heroien eta herritarren artean. Honela dio Leivak:

el *agathós* se constituye en el modelo de conducta para aquellos que lo rodean, son sus acciones las que constituyen el marco moral para los demás. Esta percepción de admiración y reverencia lo asemeja a los dioses; es a sus héroes a quienes recurren los hombres para su protección y salvación.⁴⁴

Leivaren hitzek kolektibitate bati egiten diote erreferentzia, heroiak kolektibitate horren kohesio funtzioa du, bere herriarekiko betebeharrak dituen bitartean. Ideia hau Benacchiok honela adierazten du: “La exaltación de los valores de lucha, de concurrencia, de rivalidad, se asocia al sentimiento de pertenencia a una sola y misma comunidad, a una exigencia de unidad y unificación sociales”⁴⁵. Hau ikusita, heroiak bere indibidualismora mugatzen ez dela berretsi daiteke.

Bi gizarteen *-polis* eta *oikos*- arteko ezberdintasuna somatu daiteke *Iliada* irakurtzean⁴⁶. Batetik, greziarrak modu bateratu batean aurkezten dira troiarren hesiaren aurrean. Peloponeson kokatutako *polis* ezberdinen buruzagi militar aristokratek⁴⁷ Troiako Priamo eta Hektorren aurrean indarrak batuz armada bakarra osatzen dute. Adierazgarria bihurtzen da irudi hau aristokrata militarren, hau da, heroi homerikoen artean berdintasunean oinarritutako balioak azaleratzen direlako, Aro Klasikoan *polis*ak ezaugarritzen duten berdintasunaren lehen pausoak liratekenak, hain zuzen. Hortaz, pertsonaia homerikoei leporatzen zaien indibidualismoa bertan behera uzteko beharrean gaude, interes komunei jarraituz jarduten baitute. Hori buruz Adkinsek honako baieztapena egiten du: “the essence of the philotes-relationship is co-operation, not competition”⁴⁸. *Polis* ezberdinetako buruzagiek ez dira haien artean etsaiak

ahal duena ez du *timérik* izango. Beraz, heroi homerikoei esleitutako ezaugarria da, defendatu eta babestu behar dena.

⁴³ Akilesek bere etxea gogoratzen du, bueltatzeko desirak erakutsiz. Hori litzateke modu indibidualista batean garatutako jarrera, baina *polis* baten heroia eta *agathós* denez, beharrezkoa du borrokan jarraitzea.

⁴⁴ Leiva, op. cit., 2018, 165. orr.

⁴⁵ Benacchio, 2019, 44. orr.

⁴⁶ *Odisean*, aldiz, Ithaka da *polis*aren irudikapena, zeinean autonomia politikoa eta ekonomikoa eta asanblada dagoen. Hala ere, zenbait autorek Ithaka *oikos* bat dela adierazten dute.

⁴⁷ Agamemnon, Menelao, Odiseo eta Akiles, adb.

⁴⁸ Adkins, 1972, 17. orr.

konsideratzen, baizik eta elkarren arteko aliantza indartsu bat daukate, *philotes* deituriko harremanean oinarritzen dena.

Bestetik, *oikosaren* adierazlea litzateke Troia bera, eta bertan ezarrita dagoen monarkia eredua (oinordekotza sistema jarraitzen duena, *polisetan* indarrean dauden asanbladen kontrara). Hala ere, esan ohi da Troia *polis* bat dela, *basileús* bat duena - Priamo- eta zaharren kontseiluarekin, nahiz eta azken hau akeoen asanbladakoarekin konparatuz pasiboagoa den. Troia *polisa* dela esan arren, bertan ematen den egiturak iraganeko *oikos* baten antza gehiago hartzen du, Aro Klasikoan *polis* batek izango duen egitura baino. Beraz, lan honetan Troia *oikos* eta *polisen* erdibideko antolakuntza duen hiria delaren ideia jarraituko da, antza handiagoa izanez *oikosekin*.

Hortaz, zer da *oikos* bat eta zer antza du Troiarekin? *Oikos* batean autoritate nagusia gizon helduena da, etxeko lanak bete daitezten arduratzen dena eta *oikosa* aurrera ateratzeaz arduratzen dena; Troian funtzio hori Priamok hartzen du eta bere oinordekoa den Hektorrengan delegatzen du gerraren gaineko ardura. *Oikosa* zutik mantentzeko ardura duenak ezin badu bere eginkizuna aurrera eraman, bere erorketa pertsonalarekin batera *oikosa* ere erortzen da. Hori da, hain zuzen, Troian gertatzen dena *Iliadaren* ikuspegitik: Hektor hil ostean, greziarrak hirira sartu eta suntsitzen dute. Ideia hau Scullyk adierazten du: “the qualities associated with the city’s defence have been transferred to the city’s principal defender, Hektor”⁴⁹. *Polisaren* testuinguruan aldiz, heroiak *-agathós* dena- borrokan gainditua bada, bere ohorea *-timé-* galduko du eta harekiko lotsaren sentimendua azaleratuko da; baina bere *polisa* ez da berarekin batera eroriko.⁵⁰

Bi eredu sozial ezberdin hauen islada aurkitu daitekela zenbait autorek baieztatzen dute; adibidez, Scullyk olerki homerikoei buruz honela dio: “the poems present a hybrid world picture with varying and occasionally contradictory systems of social organization”⁵¹, eta Paretik: “revelan continuas fluctuaciones y contradicciones en el

⁴⁹ Scully, op. cit., 1981, 16. orr.

⁵⁰ Aipatu izan da Akiles hiltzean ez duela bere *timé* galtzen, eta ez du bere herriarekiko lotsa sortzen Troiaren aurkako borroka greziarrek irabazten dutelako, eta Akilesek hauekin batera egiten du borroka. Beraz, garaipena herri (edo *polis*) greziar guztientzako da.

⁵¹ Scully, op. cit., 1981, 1. orr.

enmarcamiento de su relato, que ora reproduce realmente las condiciones de fases antiguas, ora las coetáneas más conocidas del cantor”⁵². Vernantek, baita ere, honela dio:

Quando se encara la lectura de Homero el cuadro cambia: es otra sociedad, un mundo humano diferente el que se descubre en la *Ilíada*, como si desde la edad homérica los griegos no pudieran ya comprender exactamente el rostro de la civilización micénica a la cual se vinculaban y que, por intermedio de los aedos, creían hacer resurgir del pasado.⁵³

Hitz hauekin Vernantek adierazten du Homeroren garaiko gizartea Aro Mizenikoarekiko beste bat dela eta balio moral ezberdinak indarrean zeudela. Ez du adierazten, ordea, Homerok ezagutzen duen gizartea islatzen duenik, baina bai garrantzitsua zaigun elementuaz konturatzen da: bi gizarte ezberdin ziren. Hori da atal honen abiapuntu nagusia, eta ideia horri jarraiki, gizarte homerikoa olerkietan islatuta bai agertzen dela ikusiko da.

Horrez gain, Aro Arkaikoko biztanleak Aro Mizenastarra irudikatzen dituzten pasarteekin identifikatuak sentitzea zaila litzateke, Vernanten hitzak kontuan hartuz. Beraz, olerkiak gizarte homerikoa hezteko erabiliak zirelaren ideia ez da mantentzen, bai Aro Mizenastarraren bai Aro Homerikoaren balioak islatuta daudelako, eta lehenengok ez dutelako gizarte homerikoaren errealitatea irudikatzen.

Balio moral aurrefilosofikoak ezberdinak dira *oik*osetan antolatzen den gizarte batean eta *polis*etan antolatzen direnak. Esan den moduan, Aro Mizenikoaren antolaketa soziala *oik*osetan egituratuta zegoen eta Aro Arkaikoan, aldiz, *polis*ak indarra hartzen hasi ziren, asanbladan eta berdintasunean oinarritzen den antolaketa izanik. Homeroren garaian asanbladak indarrean zeudela *Iliadan* eta *Odisean* ikus daiteke bi adibide hauen bitartez: “(...) ἀγορὴν δὲ καλέσσατο λαὸν Ἀχιλλεύς: / τῷ γὰρ ἐπὶ φρεσὶ θῆκε θεὰ λευκώλενος Ἥρη.” (*Il.* I, 54-55). Itzuliz gero, “Akilesek gizonak asanbladara deitu zituen, jainkosak bere bularrean jarrita, beso zurien Hera”⁵⁴. Edota: “αὔριον εἰς ἀγορὴν καλέσας ἥρωας Ἀχαιοὺς” (*Od.* I, 272) honela itzulita: “dei iezaiozu bihar heroi (noble)

⁵² Pareti, 1961, 55. orr.

⁵³ Vernant, op. cit., 1992, 23. orr.

⁵⁴ Grekeratik egindako itzulpen literala da. Ideia hobeto ulertzeko, Crespo Güemesek egindako itzulpena hartu daiteke: “Aquiles llamó a la asamblea a los hombres, inspirado por Hera, la diosa de brazos nevados” (Crespo Güemes, 1991, *Ilíada*. Gredos).

akeoei asanbladara”⁵⁵. Era honetan, Homeroren garaiko egitura politikoaren antolaketa olerkietan agertzen dela baieztatzen da. Eta gizarte eredu horretan ematen diren balio moralak pertsonaiek hartzen dituzten erabakietan ikus daitezke, baita jainkoekin duten harremanean ere.

Hau guztia esanda, Rodríguezek azaltzen duen heroi homerikoen subjektibotasuna bizi diren egitura sozialean du oinarria. *Polisetan* norbanakoak aukera du bere nahiak eta iritzia garatzeko eta plazaratzeko, marko horretan garatzen den asanbladak horretarako testuinguru aproposa eskaintzen baitu. Aro Mizenikoan, ordea, zailagoa suertatzen da horrelako jarrerak azaleratzea, erregeak duen esparru guztien autoritatea arrazoi.

Orain arte obretan *polis*en egituraren baitako gizarteak agertzen direla ikusi da, eta horrek eragiten dituen aldaketa moraletan arreta jarri da *oikosen* egiturarekin alderatuz. Honen harira, *Odisean* inolako antolakuntza sozialik ez duten izakiak deskribatzen dira. Ziklopeen pasartean modu argiago batean ikusi daiteke zein diren komunitate baten baitan bizitzearen eta ez bizitzearen arteko ezberdintasunak; eta zergatik deritzogu lan honetan antolakuntza soziala hain garrantzitsua dela pertsonaien subjektibotasuna eta psikologia aztertzeke garaian.

Beraz, Homerok izaki ez politikoa izatearen ondorioak erakusten ditu; adibidez, komunitate baten markoan asanbladarik ez dutenak, edota jainkoekiko errukirik ez dutenak ez dira gizakiak, munstro mespretxagarriak baizik. Ideia hau ondo irudikatzen du Polifemo ziklopeak. Honela adierazten du Odiseok *Odisean* ziklopeei eta zehazki Polifemori erreferentzia eginez:

ἔνθεν δὲ προτέρω πλέομεν ἀκαχήμενοι ἦτορ.

Κυκλώπων δ' ἐς γαῖαν ὑπερφιάλων ἀθεμίστων

ικόμεθ', (...).

(*Od.* IX, 105-107)

“Handik, bihotza saminduta, urrunago nabigatzen dugu.

⁵⁵ Ateneak Telemakori esanda. *Iliadan* bezala jainkosa da gizakia asanblada deitzeko motibatzen duena. Gainera, “particularmente en la Odisea, la palabra “héroe” es una expresión de clase para toda la aristocracia (*agathós* direnak eta *timé* dutenak), y a veces hasta parece comprender a todos los hombres libres.” (Finley, 1995, 13. orr.). Asanbladen ideiarekin batera aipatutako berdintasuna azpimarratzen da Finleyren aipu honekin.

Ziklope harroputzen eta legerik gabekoen lurraldera iritsi ginen”.

τοῖσιν δ' οὐτ' ἀγοραὶ βουλευφόροι οὔτε θέμιστες,

(*Od.* IX, 112)

“Hautentzat (ez dago) ez erabakiak hartzeko asanbladarik, ez legerik”.

ἔνθα δ' ἀνὴρ ἐνίαυε πελώριος, ὅς ῥα τὰ μῆλα

οἶος ποιμαίνεσκεν ἀπόπροθεν· οὐδὲ μετ' ἄλλους

πωλεῖτ', ἀλλ' ἀπάνευθεν ἐὼν ἀθεμίστια ἤδη.

(*Od.* IX, 187-189)

“Han gizon beldurgarria bizi zen, zeina urrutian

isolatuta ardiak zaintzen zituen; besteen artean

joan gabe, eta banekien (bere) isolamenduan gaiztoa zela”⁵⁶.

Deskribapen hauen bitartez Homero Polifemoren bakardatea eta berak hautatutako isolamendua azpimarratzen du, hau da, zibilizatu gabeko izakia dela argi utzi nahi du. Bakardatean hazitako izakiak ez du komunitatearen baliorik eskuratzen, eta horregatik dio gaiztoa, beldurgarria eta legerik gabekoa dela. Ziklopeen pasartean Aristotelesek garatutako *ζῷον πολιτικόν* (*zoon politikón*) edo “animali politikoa”-ren kontzeptua agertzen da. Ikusi daitekenez, honi buruz jada Homerok hausnartu zuen lau mende lehenago eta izaki zibilizatu baten oinarrian kolektibitatea jarri zuen, non egitura sozialaren erdigunean asanblada zegoen.

Kolektibitateak balio zuhur batzuk eskaintzen ditu, Polifemok azaltzen dituen jarreraren kontrakoak diren balioak, alegia. Balio edo jarrera horien adibide dira Polifemoren abegitasun eza, Odiseo eta bere gizonen borondatearen kontra hauek atxikitzea edota, muturrera eramanda, hauek jatea. Komunitatean bizi diren gizakiak agertzen diren pasarteetan, hauek abegitsuak dira eta jatekoak eta edatekoak eskaintzen

⁵⁶ “Era dueño del antro un varón monstruoso, pacía sus panados aparte, sin trato con otros cíclopes, y guardaba en su gran soledad una mente perversa” (Pabón, 2019, *Odisea*. Gredos).

dizkiete iritsitakoei; balio hauen adierazle nagusia feaziarren⁵⁷ lurraldean bizi den komunitatea da.

5. Ondorioak

Lan osoan zehar ikusitakoarekin, *Iliada* eta *Odisearen* interpretazio tradizionalak ematen duen irakurketa alde batera uzteko beharrean gaude, eta bestelako interpretazioak aintzat hartzeko eta kontrastatzeko premia dugu.

Azaldu dira Havelockek garatutako tesiaren barruan hainbat ideia, hala nola gizarte agrafo baten ezaugarriak zeintzuk diren eta horiek garai aurrefilosofiko bati zuzenean lotuta daudela. Bi ideia hauei pertsonaia homerikoen *razionaltasun* eza gehitzen zaie. Egitura sozio-politikoari dagokionez, sistema hierarkiko bat antzeman daiteke obren konposizioan. Erljioari estuki lotuta dagoen gizarte horrek garaiko erregeari botere autoritarioa gauzatzeko zilegitasuna ematen zion. Modu honetan, errege autoritarioak, kondairetako heroiarekin identifikatua izatearen ondorioz, bere boterea betikotzea zuen helburu.

Aro Mizenikoan Homerok bildutako kondairek horretarako funtzioa betetzen zuten, baina lau mende igarota pentsaezina da pertsonaiek haien izaeran aldaketarik jasan ez zutenik. Horregatik, teoria tradizionalari kontrajartzen zaion bestelako argudioak eman dira. Horien artean jainkoen papera bigarren maila batean kokatzen dela ikusi da; modu horretan, gizakiak dira olerkiaren trama gidatzen dutenak. Gainera, olerkiek heroien alderdi gizatiarrena erakusten dute, emozioz eta sentimenduz betea. Alderdi gizatiar horren barnean pertsonaiek egoerak zalantzan jartzeko eta erabakiak hartzeko duten gaitasuna kokatzen da.

Hori horrela, lan honen helburua interpretazio tradizionalak ematen dituen argumentuak eztabaidatzea da. Hipotesi nagusiak Aro Arkaikoan sortzen hasi ziren *polis*en egiturari behatzen dio. *Polis*ak kolektibitatearen balioak bermatzen zituen, non eztabaidarako eta argudiaketarako testuingurua eskaintzen den. Homerok islatutako gizarteak *polis* baten baitan egituratzen dira, eta horrek pertsonaiei balio zein ezaugarri

⁵⁷ *Odisean* feaziarren gizartea idealizazio bat da.

jakin batzuk eskuratzea ahalbidetzen die. Modu horretan, balio zein ezaugarri horiek islatuta daude pertsonaia homerikoen psikologian ere, subjektu politiko autonomoa irudikatuz. Subjektu politiko bilakatzen dira *polis*en egituran parte hartze aktiboa duten unetik, hala nola asanbladen antolaketan parte hartzean.

Esandakoarekin jarraituz, *polis*ak zuzenean eragiten duenez herritarren ohitura zein betebeharretan, asanbladetan parte hartzera behartuta daude Akiles eta Odiseoren antzeko gizonak eta hori da, hain zuzen, *Iliadan* zein *Odisean* ikusi daitekeena. Asanbladetan eta -ia berdina dena- eztabaida politikoetan parte hartzeak hausnarketarako eta erabaki pertsonalak (autonomia modu honetan ulertu behar da: erabaki pertsonalak hartzeko gai izatea) hartzeko gaitasun bat garatzen eta sendotzen laguntzen du. Beraz, testuinguru honetan aurkitzen diren heroi homerikoei ezin zaie gaitasun horiek ukatu ezta zalantzan jarri, jainkoen presentzia tartean badago ere.

Beraz, hirugarren atalean emandako Rodríguezen tesiak balio izan du heroiaren subjektibotasuna azaltzeko. Baina lan honetan bestelako ikuspuntu at garatu nahi izan da: nondik dator heroiaren izaera hausnarkorra eta subjektibotasuna? Honi erantzuteko garaiko egitura sozialak izan zezakeen eraginean jarri da arreta, hau izanik pertsonaien subjektibotasuna eta *polis*ak harremantzeko abiapuntua.

Hau guztia esanda eta ondorioei amaiera emateko, Aro Arkaikoan ezarrita zegoen gizarte ereduak heroi homerikoengan izandako eraginari buruz analisi sakonagoa egitea komeni litzatekela adierazi nahiko nuke; lan hau gaiaren azaleko azterketa bat baino ez bailitzateke izango. Hau gauzatzeko zailtasunak ez dira gutxi izan, gaiari buruz argitaratutako lanak oparoak ez baitira eta literaturan hedatuen izandako hipotesia ere ez delako.

Bibliografía

- ADKINS, A. W. (1972). *Moral values and political behaviour in Ancient Greece*. Londres: Chatto & Windus.
- BENACCHIO, F. (2019). Una aproximación a la idea de polis y justicia en Homero y Hesíodo. *Byzantion Nea Hellás*, (38), 35–48. Hemendik eskuratuta: <https://byzantion.uchile.cl/index.php/RBNH/article/view/55485>
- DALBY, A. (2008). *La reinención de Homero. El misterio de los orígenes de la épica*. Madril: Gredos.
- FINLEY, M. I. (1995) *El mundo de Odiseo*. Madril: Fondo de Cultura Económica de España.
- HAVELOCK, E. A. (1994). *Prefacio a Platón*. Madril: Visor.
- (1996). *La musa aprende a escribir*. Bartzelona: Paidós.
- HOMERO. *Iliada*. Itzulpena: Crespo Güemes, E. (1991). Madril: Gredos.
- *Odisea*. Itzulpena: Pabón, J. M. (2019). Madril: Gredos.
- LASSO DE LA VEGA, J. (1963). Religión Homérica. In Gil, L. (Ed.), *Introducción a Homero*. 253-287. Madril: Ediciones Guadarrama.
- LEIVA R., M. (2018). Ética y sociedad: A. W. Adkins y los valores morales en Homero. *Byzantion Nea Hellás*, 37, 161–174. Hemendik eskuratuta: <https://byzantion.uchile.cl/index.php/RBNH/article/view/51557>
- LUCE, J. V. (1978). The “Polis” in Homer and Hesiod. *Proceedings of the Royal Irish Academy. Section C: Archaeology, Celtic Studies, History, Linguistics, Literature*, 78, 1–15. Hemendik eskuratuta: <http://www.jstor.org/stable/25506349>
- MACINTYRE, A. (1991). *Historia de la ética*. Bartzelona: Paidós
- PARETI, L. (1961). *Homero y la realidad histórica*. Mexico D. F.: Uteha.

RODRIGUEZ DELGADO, J. C. (2010). *El desarme de la cultura. Una lectura de la Ilíada*. Madril: Katz.

VERNANT, J. P. (1992). *Los orígenes del pensamiento griego*. Bartzelona: Paidós.

- (2003). *Mito y sociedad en la Grecia antigua*. Madril: Siglo XXI.

SCULLY, S. (1981). The Polis in Homer: A Definition and Interpretation. *Ramus*, 10 (1), 1-34. doi:10.1017/S0048671X00005312